Lur erreserba ingurumen integraziorako:

Lurrak berriro sailkatzeko prozesuak paisai integraziorako lur erreserba hartuko du. Integrazio tratamenduak plan partzialean eta urbanizazio proiektuan definituko dira, eta ondokoak jaso behar dira bertan:

- Obra faseak eta jarduera osagarriek (instalazio laguntzaileak, azaleko isurketa uraren drainatze sarea, obrarako sarbideak, eta abar) eragindako eremu guztiak aztertzea.

- Eragindako eremuan egin beharreko jarduerak aztertzea jarduketaren paisai integrazioa lortzeko. Lehengoratzerako erabiliko diren landare espezieen deskripzioa jasoko da, baita landareok ezarri eta mantentzeko metodoak ere.

Balio agrologiko handiko geruza edafikoak berreskuratzea.

Obra fasean eta lurrak mugitzean, balio agrologiko handiko lurren azal zerumuga berreskuratuko da, harrezkero, industri poligonoaren ingurumena eta paisaia berreskuratzeko erabili ahal izateko. Lur emankorren mailak batzeko metak bi metro garai izango dira gehienez, eta ibai ibilguetatik edo zuhaixka edo zuhaitzezko landareetatik urrun jarriko dira. Erabili baino lehen, lur pilak leku berean sei hilabetez edo gehiagoz egongo badira, pilak hidroereingo dira haize edota ur higaduraren ondoriozko lur galera saihesten duten belarki espeziez.

Reserva de suelo para la integración ambiental:

El proceso de recalificación de los terrenos incluirá una reserva de suelo para la integración paisajística. Los tratamientos de integración se definirán en el Plan Parcial y Proyecto de Urbanización, recogiendo los siguientes aspectos:

- Análisis de todas las zonas afectadas en fase de obras así como actuaciones complementarias (instalaciones auxiliares, red de drenaje de escorrentía superficial, accesos a la obra etc.,)

- Actuaciones a realizar en el área afectada para conseguir la integración paisajística de la actuación. Se incluirá descripción de las especies vegetales que se vayan a utilizar en la restauración, así como los métodos de implantación y mantenimiento de las mismas.

Recuperación de capas edáficas de elevado valor agrológico.

En fase de obras y durante el movimiento de tierras, se recuperarán los horizontes superficiales de los suelos de elevado valor agrológico para su posterior reutilización en las labores de restauración ambiental y paisajística del polígono industrial. Estos niveles de tierras fértiles se almacenarán en acopios no superiores a 2 m. de altura los cuales se ubicarán en áreas alejadas de cursos fluviales o zonas de vegetación arbustiva o arbórea. En caso de que la tierra vaya a permanecer acopiadas seis o mas meses antes de su reutilización, los acopios se hidrosembrarán con especies herbáceas cuya presencia evite la pérdida de suelo por erosión eólico y/o hídrica.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**1611**

**174/2007 FORU AGINDUA, martxoaren 2koa. Honen bidez, Alegría-Dulantziko Udal Planeamenduaren Ordezko Arauetako Alegría-Dulantziko 21 zenbakiko egikaritze unitatearen Hitzarmen Batzordea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzen da.**

Alegría-Dulantziko Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2007ko otsailaren 23ean sarrera izan zuen idazki baten bidez, Alegría-Dulantziko Planeamenduko Ordezko Arauetako 21 zenbakiko egikaritze unitatearen hitzarmen batzordea eratzea onartzeko hartu zen erabakiaren berri ematen zion sail honi, baita eskatu ere batzorde hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko.

Hirigintza Zerbitzuak espedientearen forma eta prozeduraren zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua eman zuen eta batzordea erregistroan sartzeko proposamena egin.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

21 zenbakiko egikaritze unitatearen konpentsazio batzordeari buruzko eratze espedientearen eta Alegría-Dulantziko Planeamenduari buruzko Ordezko Arauen izapidetzea eta forma-edukia onartzea eta batzorde hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 2a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Foru Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**1611**

**ORDEN FORAL 174/2007, de 2 de marzo, de inscripción de la Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución nº 21 de Alegría-Dulantzi, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Alegría-Dulantzi, en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.**

El Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 23 de febrero de 2007, remite a este Departamento Acuerdo aprobatorio de la Constitución de la Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución nº 21 de Alegría-Dulantzi, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Alegría-Dulantzi, solicitando su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo la corrección formal y procedimental del expediente y proponiendo su inscripción en el Registro.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen

DISPONGO:

Aprobar la tramitación y el contenido formal del expediente de Constitución de la Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución nº 21 de Alegría-Dulantzi, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Alegría-Dulantzi, y ordenar su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 2 de marzo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**1664**

**175/2007 FORU AGINDUA, martxoaren 5ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Albeizko (Asparreneko udalerria) SAUR-1 sektorearen plan partzialaren espedientea.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Alkatearen 2006ko otsailaren 2ko ebazpenaren bidez, Asparreneko Udalak hasierako onarpena eman zion Albeizko SAUR-1 sektorearen plan partzialari, eta espedientea hilabete jendaurrean jartzea erabaki zen. Honela eman zen horren berri: 2006ko otsailaren 24ko ALHAOn (23. zenbakia) argitaratuz eta 2006ko otsailaren 15eko Diario de Noticias de Álava egunkarian iragarkia jarriz.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**1664**

**ORDEN FORAL 175/2007, de 5 de marzo, de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del SAUR-1 de Albeniz, municipio de Asparrena.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante resolución de alcaldía de fecha 2 de febrero de 2006, el Ayuntamiento de Asparrena acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial del SAUR-1 de Albeniz, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA 23, de 24 de febrero de 2006 y en el Diario de Noticias de Álava de 15 de febrero de 2006.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, alegazio bat aurkeztu zen, eta, hori konpondu ondoren, Udalak behin-behineko onarpena eman zion plan partzialari, 2006ko azaroaren 2an. Bestalde, Arabako Foru Aldundira bidali zuen, behin betiko onarpena eman ziezaioten. 2006ko azaroaren 14an sartu zen aldundian.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Albeizko SAUR-1 sektorea, Asparreneko udalerrikoa, lurzoru urbanizagarri gisa dago sailkatuta eta bizitegietarako, Asparreneko Planeamenduaren Ordezko Arauetan.

Bigarrena.- Espedientea aztertu da, eta, hirigintza arautegiarekin alderatu ondoren, eskatzen diren baldintza formalak zein materialak betetzen dituela egiaztatu da, honako hauetan izan ezik:

A. 7. planoa (kalifizazio xehekatua) eta 8. planoa (definizio geometrikoa) aztertu ondoren, zera ikusten da: ez dela errespetatu, sektorean dagoen errekari dagokionez, bost metroko zortasun eremua, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren seigarren artikuluak ezartzen duena. Dekretu horren bidez onartu zen Uren Legearen testu bateratua.

B. Sektorearen Planeamenduaren Ordezko Arauetan eskatzen den paisaiaren diseinua behar bezala errespetatzeko, zehazki adierazi beharko da plan partzialean zer esan nahi duten bi kontzeptu hauek: “bi etxebizitza berdin edo antzeko” eta “hurbil edo elkarren ondoan dauden lurzatiak”.

C. Lurzatiko estalkiden eta itxituren baldintzak zehaztuko dira arautegian, edo, bestela, Planeamenduaren Ordezko Arauetako ordenantza zehatz batera jo behar da.

Sektoreko azpiegituren sare orokorren egokitasuna justifikatu behar da, azterlan baten bidez, Planeamenduaren Arautegiaren 53. artikuluak ezartzen duen moduan.

Hirugarrena.- Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak egindako txosten teknikoaren arabera, honako aldaketa hauek ezarri behar dira:

A. A-3012 errepidearen ondoan dagoen SAUR-1 sektorearen esparruan, A-3012 errepideari dagokion zortasun eremua agertzea; eremu hori ekainaren 25eko Arabako Lurralde Historikoaren Errepideetako 20/1990 Foru Aginduak jasotakoaren arabera kokatuko da, hau da, lur-berdinketaren kanpoko ertzetik zortzi (8) metrora. Zortasun eremua esparru bakoitzari eragiten dion azalera gisa konputatu badaiteke ere, ezingo da izan berdegunea besterik, eta hori garbi geratuko da adierazita planoetan. Libre geratuko da, beraz, beste helburu batzuetarako aldaketa edo erabileretatik.

B. A-3012 errepidearen ondoko espaloiak kentzea, salbu eta, aurreko puntuan adierazitakoa kontuan harturik, espaloi horiek zortasun eremutik kanpo geratzen badira.

C. Lurzatiaren itxitura ezartzea, bai eta 2. puntuan adierazitako zortasun eremutik kanpo geratzen den landare-hesia ere; gainera, libre utzi behar da espaloia, B puntuan azaltzen den bezala uztea erabakitzen bada.

D. Ezin izango zaio eragin, inolaz ere, A-3012 errepideari, ez eta Jabetza Publikoko Eremuari ere, bidea eta eremu hori lotzeko hobekuntza egiteko ez bada. Zehaztasun handiagoarekin jarri behar da hori Urbanizazio Proiektuan, bai trazatuan (eta horretarako gutxienez 15 metroko erradioak erabiliko dira), bai gainerako kontuetan (seinaleak, zorua, drainadura eta abar).

E. A-3012 errepidearen Zerbitzu Orokorretako Gunean zerbitzuen kanalizazio berriak jartzea, hau da, saneamendua, telekomunikazioak, argiak, argindarra eta gasaren sarea. Horiek guztiek errepidearekiko paraleloan joan behar dute, espaloia B puntuan adierazitako moduan jartzen bada salbu; kasu horretan, azpitik joango dira zerbitzu guztiak.

Ondorioz, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Albeizko SAUR-1 sektorearen plan partzialaren espedienteari behin betiko onarpena ematea, jarraian adierazten diren

Segundo.- Durante el periodo de información pública fue presentada una alegación, tras ser resuelta por el Ayuntamiento se procedió a la aprobación provisional del Plan Parcial en fecha 2 de noviembre de 2006 y a su remisión a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 14 de noviembre de 2006.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El SAUR-1 del núcleo de Albeniz, en el municipio de Asparrena está clasificado como suelo urbanizable y calificado como residencial por las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asparrena.

Segundo.- Analizado el expediente y confrontado con la diversa normativa urbanística, se comprueba que cumple los requisitos tanto formales como materiales exigidos, salvo en los siguientes extremos:

A. Tal y como se desprende de los planos 7, de calificación pormenorizada, y 8, de definición geométrica, no se ha respetado, respecto al arroyo existente en el sector, la zona de servidumbre de cinco metros de anchura exigida en el artículo seis del Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas.

B. Con el fin de poder aplicar correctamente las pautas de diseño paisajístico requeridas al sector desde las Normas Subsidiarias de Planeamiento, deberá ser especificado en el Plan Parcial qué se entiende por los conceptos “dos viviendas iguales o semejantes” y “parcelas cercanas o próximas”.

C. Deberán concretarse en la normativa las condiciones de las cubiertas y cierres de parcela, o remitirse a una ordenanza concreta de las Normas Subsidiarias de Planeamiento.

Se deberá aportar estudio justificativo de la idoneidad de las redes generales de infraestructuras que servirán al sector ordenado, de acuerdo con lo establecido en el artículo 53 del Reglamento de Planeamiento.

Tercero.- Informado el documento técnico por la Dirección de Obras Públicas y Transportes, procede incluir las siguientes modificaciones:

A. Representar dentro del ámbito del SAUR-1 colindante con la carretera A-3012, la Zona de Servidumbre correspondiente a la citada carretera A-3012, la cual se situará, de acuerdo con la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava, a ocho (8) metros de la arista exterior de la explanación. Aunque la Zona de Servidumbre pueda ser computable a efectos de superficies afectas a cada ámbito, no podrá tener otro uso que no sea el de zona verde, lo cual deberá quedar de este modo explicitado en los planos, debiendo mantenerse libre de cualquier actuación que suponga su alteración o utilización para otros fines.

B. Eliminar las aceras junto a la carretera A-3012, salvo que, teniendo en cuenta lo indicado en el punto anterior, las aceras se dispongan fuera de la Zona de Servidumbre.

C. Situar el cierre de parcela, y el seto vegetal previsto fuera de la Zona de Servidumbre citada en el punto número 2, dejando libre además la acera, en el caso en que se opte por disponer ésta conforme a lo especificado en el punto B.

D. En ningún caso se podrá actuar sobre la carretera A-3012, ni sobre su Zona de Dominio Público, más que en lo relativo a la mejora de la conexión del vial que sirve de acceso al ámbito, que deberá definirse con mayor detalle en el Proyecto de Urbanización, tanto en su trazado, para lo que deberán emplearse radios mínimos de 15 metros, como en el resto de aspectos relacionados con el mismo (señalización, firme, drenaje, etc…).

E. Situar en la Zona de Servicios Generales de la carretera A-3012 el trazado de las nuevas canalizaciones de servicios, tales como saneamiento, telecomunicaciones, alumbrado, red eléctrica y red de gas, que discurran en paralelo a aquella, salvo en el caso en que se opte por disponer acera conforme a lo especificado en el punto B, en que todos los servicios deberán discurrir bajo la misma.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del SAUR-1 de Albeniz, promovido por la Comunidad de Propietarios

aldaketak ezarriz. Albeizko SAUR-1eko jabeen komunitateak sustatu du espedientea, eta Asparreneko Udalak izapidetu du.

I.Sektorean dagoen errekarekiko bost metroko zortasun eremua errespetatzea, horrela ezartzen baitu uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 6. artikuluak. Dekretu horren bidez onartu zen Uren Legearen testu bateratua.

II. Arautegian zehaztea zer esan du duten bi kontzeptu hauek: “bi etxebizitza berdin edo antzeko” eta “hurbil edo elkarren ondoan dauden lurzatiak”.

III. Lurzatiko estalkiden eta itxituren baldintzak zehaztea arautegian, edo, bestela, Planeamenduaren Ordezko Arauetako ordenantza zehatz batera jo behar da.

IV. Sektoreko azpiegituen sare orokorren egokitasuna justifikatzen duen azterlana eranstea.

V. A-3012 errepideari dagokionez:

A. Aipatutako A-3012 errepidearekiko zortasun eremua zehaztea. Ezingo du izan berdegunea beste erabilerarik, eta horrela zehaztu beharko da planoetan.

B. A-3012 errepidearen ondoko espaloiak kentzea, salbu eta, aurreko puntuan adierazitakoa kontuan harturik, espaloi horiek zortasun eremutik kanpo geratzen badira.

C. Lurzatiaren itxitura ezartzea, bai eta 2. puntuan adierazitako zortasun eremutik kanpo geratzen den landare-hesia ere; gainera, libre utzi behar da espaloia, B puntuan azaltzen den bezala uztea erabakitzen bada.

D. Eremuarekin lotura egiten duen bidea xehetasun handiagoarekin zehaztu behar da Urbanizazio Proiektuan, bai trazaduran (eta horretarako gutxienez 15 metroko erradioak erabiliko dira) bai gainerako kontuetan (seinaleak, zorua, drainadura eta abar).

E. A-3012 errepidearen Zerbitzu Orokorretako Gunean zerbitzuen kanalizazio berriak jartzea, hau da, saneamendua, telekomunikazioak, argiak, argindarra eta gasaren sarea. Horiek guztiek errepidearekiko paraleloan joan behar dute, espaloia B puntuan adierazitako moduan jartzen bada salbu; kasu horretan, azpitik joango dira zerbitzu guztiak.

Bigarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro ere jendaurrean jarri gabe, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarren.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoaren aurrean, ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa, ebazpena eman zuen organoari. Horretarako, hilabete izango da egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 5a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

**1663**

**117/2007 FORU AGINDUA, otsailaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatuarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko elkarte eta erakundeek sustatutako kultura inbertsioak garatzeko 2007ko dirulaguntzetarako deialdia onartzen da.**

Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak 2007rako dituen helburuetako bat honako hau da: Arabako Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko elkarte eta erakundeek 2007an

del SAUR-1 de Albeniz y tramitado por el Ayuntamiento de Asparrena, con las siguientes modificaciones:

I. Respetar respecto al arroyo existente en el sector la zona de servidumbre de cinco metros de anchura exigida en el artículo 6 del Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas.

II. Definir en la normativa qué se entiende por los conceptos de “dos viviendas iguales o semejantes” y “parcelas cercanas o próximas”.

III. Concretar en la normativa las condiciones de las cubiertas y cierres de parcela, o remitirse a una ordenanza concreta de las Normas Subsidiarias de Planeamiento.

IV. Aportar el estudio justificativo de la idoneidad de las redes generales de infraestructuras que servirán al sector.

V. En relación con la carretera A-3012:

A. Representar la Zona de Servidumbre correspondiente a la citada carretera A-3012. No podrá tener otro uso que no sea el de zona verde, lo cual deberá quedar de este modo explicitado en los planos.

B. Eliminar las aceras junto a la carretera A-3012, salvo que, teniendo en cuenta lo indicado en el punto anterior, las aceras se dispongan fuera de la Zona de Servidumbre.

C. Situar el cierre de parcela, y el seto vegetal previsto fuera de la Zona de Servidumbre citada en el punto número 2, dejando libre además la acera, en el caso en que se opte por disponer ésta conforme a lo especificado en el punto B.

D. La conexión del vial que sirve de acceso al ámbito, deberá definirse con mayor detalle en el Proyecto de Urbanización, tanto en su trazado, para lo que deberán emplearse radios mínimos de 15 metros, como en el resto de aspectos relacionados con el mismo (señalización, firme, drenaje, etc…).

E. Situar en la Zona de Servicios Generales de la carretera A-3012 el trazado de las nuevas canalizaciones de servicios, tales como saneamiento, telecomunicaciones, alumbrado, red eléctrica y red de gas, que discurran en paralelo a aquella, salvo si se opta por disponer acera conforme a lo especificado en el punto B, en cuyo caso todos los servicios deberán discurrir bajo la misma.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 5 de marzo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

**1663**

**ORDEN FORAL 117/2007 de 27 de febrero del Diputado de Cultura, Juventud y Deportes que aprueba la convocatoria de subvenciones para desarrollo de inversiones culturales promovidas por Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Álava, ejercicio 2007.**

El Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava tiene previsto dentro de sus objetivos para el ejercicio 2007, su apoyo económico a las Asociaciones y Entidades